



Sukar malina

- 1 Agur zu ene maitea iduzki eder begia
zure gatkan nik utzi niro bizi naizen herria
Eta aldera zure ganatzen, izar xarmegarria.
- 2 Mintzo zira ederki ederki eta oneski
Zureganik nahi nuke jakindu nik bereziki
Noiz izanen naizen zuretzat izar edo iduzki.
- 3 Zazpi urte ia baditu uda honetan konplitu
Amodio perfek batez zintudala maitatu
Bainan orai ni beldur nauzu zu zaren kanbiatu.
- 4 Eri nuzu bihotzez erraiten dizut bi hitzez
Sukar malinak harturik nago zu ez izaita beldurrez
Otoi otoi har nezazu, hil ez nadin xangrinez.
- 5 Gaitz ororen kontrako erremedioak badire
Sukar malina baldin baduzu zerbitza zaite barberez
Eta ez neregana jin ni mediku beharrez.
- 6 Urre-erretuna badut nik bere ederrez harturik
Hura ikusi arteraino zure errian sarturik
Ene bihotzak ez du izanen oren bat deskantsurik.
- 7 Ur-erretuna baduzu, bertze norbaiti emozu
Neure errian sarturik segur ikusiren ez duzu
Bertze zonbeit ahal duzun ez entseia hobe duzu.
- 8 Oi eper zango gorria airean joaile propia
Lehen bertekin ibili, bainan orain neuri guardian
Zoaz begien bixtatik parabolaz beta.
- 9 Noranahi joan nadin ene bihotza zurekin.
Nihon ez dut plazerik hartzen ene gazte lagunekin,
Non etzaitudan ikusten zure begi ederrekin!
- 10 Arrosak eder botia, edertxago du loria
Lehen bertzetan ibili eta orai neri gorthia
Zoazkit begien bixtatik parabolaz bethia.

Benane ZAMORA-ren ahotik
Frantxua LAZKUBERi ikasiak



Aspaldiko denboretan gauaz eta beti

- 1 Aspaldiko denboretan gauaz eta beti
Ihizin ibiltzen nintzen uso pollit bati
Azkenean atxeman dut; oi! bainan trixteki
Lumarikan ederrena baitzaio erori.
- 2 Supazterrean zoin den eder suburdina letoinez
Xarmegarria erradazu maite nuzun ala ez
Baietz ere ezin erran, etxekoen beldurrez
Ezetz are gutiago, zure begien ahalgez.
- 3 Maiatzean zoin den eder leihotik kanpora
Zeren orduan baita lilien denbora
Bati begiratzen diot maiz eta ardura
Gortiarene egitea ez naiteke mentura.
- 4 Gortiarene egiteko ez izan herabe,
baldin amodiorik balin bauzu batere
Izanak eta galeak jendetan badire
Ene bihotzak ez du zu bertzerik maite.

Frantxua FAGOAGA «Apezteien» ahotik.

Euskal Herritik huna jinik

- 1 Euskal Herritik huna jinik hemen bagirade ainitz
Haurditarik orotarik malurusena ni bainaiz
Bertze koblarik emanio ni Herrian orain banitz (bis).
- 2 Aita amak nigarretan beren hurrez doloretan
Plazer onik ez daiteke orai denbora huntan
Horiek oro jasan daizke jaun onaren ohoretan (bis).
- 3 Adios ait-ama anai arrebak bizi zaitzete trankilki
Presuna gazteak behar dik denbora nonbeit ibili
Ibiltzen denak badaki pena plazerraren berri (bis).
- 4 Ni sortzeko egunetan gauza frango bazterretan
Arribatu nintzanean munduko portalieta
Miseria arribatu zaldiz zela bridetan (bis).
- 5 Nik maiteari igorri letra batean goraintzi
Bizi dadien trankilki jinen nintzela laburzki
Hura gogoan nagolarik oren guzietan beti (bis).
- 6 Izan banu eskolarik izkiriatzen molderik
Engoitik izanen nitzen ederki aberasturik
Miseria kitatutik andre eder bat harturik (bis).

Olandeiko Fifin-en ahotik